



## ❖ HERNANI WUKROREKIN Korrika saioan parte hartzeko deia

Datorren astean, eguneko 100km egingo ditu Xabier Salillasek korrika, Hernaniko atletismo pistan. Helburua da, Wukrora bidaltzeko dirua bil-tzea. Hernaniar guztiei proba solidario honetan parte hartzeko deia egin die Hernani Wukrorekin-ek, taldean edo bakarka, Salillasi korrika saioan lagunduz. Izena emateko: 625 703 656 edo [hernaniwukrorekin@gmail.com](mailto:hernaniwukrorekin@gmail.com). ❖

## EGURALDIA

# Kalteak ebaluatzeko garaia da

Iragarpenek diotenez, atertu egingo du gaur, beraz, ez dugu uholde arriskurik izango. Atzoko eguna nahiko lasai joan zen, eta urak ez zuen kalte material handirik eragin. Añarbek 5 miloi m<sup>3</sup>ri eutsi zien.

ATERI izango dugu gaur, euririk ez, eta eguzki izpi batzuk ikusiko dira. Urek eragindako kalteak neurtzeko garaia da, beraz. Atzo gauean alerta gorrian zegoen Hernani (Kronikak 20:30etan erredakzioa itxi zuenean), gaur gauerako espero ziren euriteei begira.

Egun guztian zehar alerta gorrian egon zen atzo Hernani,

baina urak ez zuen eragin herenegun baino kalte handiagorik. Atzo, oraindik, ez zuten kotxerik aparkatzen utzi Portu eta Karabelgo parkinetan, eta itxura guztien arabera, gaur irekiko dituzte bi parkin horiek berriz.

Errepiderik ez zuten itxi behar izan egun guztian, lurjausi batzuk izan baziren ere:

Errotaran inguruan (Osiñaga) eta abar.

### Landare, ur azpian

Erriberetako baratzeetan eta Zubipen eta Landaren eragin ditu urak kalterik haundienak. Zubipe garbitzen aritu ziren atzo CD Hernaniko kideak. Landare oraindik ur azpian zegoen atzo.

### Añarben atek itxita

Añarbeko urtegiak jakinarazi duenez, herenegun goizaldekotik urtegiak atek itxita eduki ditu, orduak txarrenak pasa arte. Tarte horretan, 5 miloi metro kubikori eutsi die Urumeara ixuri gabe. Atzo goizeko 10:00ak aldean berriz ireki zuten ate bat, ordu batzuetan, lekua irabazteko. ❖

## ❖ LOTERIAK

### Ozenki, errugbi eta CD Hernaniko loteria daukazu?

Ozenkiko loteria kobratzeko, Santa Barbara elkartetik pasa behar da gaur (18:00-19:00). CD Hernani eta errugbi taldekoa berriz, Rural Kutxan jaso daiteke, gaur baita ere (17:00-19:30). ❖

## ❖ BERTSO TXAPELKETA

### Larunbatean jokatu da finala

Tabernetako Bertso Txapelketako finala jokatu da larunbat honetan, 23:00etatik aurrera, Garinen. 6 bertsolari arituko dira: Oier Iurramedi, Amaia Otxotorena, Izarne Zelaia, Joseba Agirre, Aitor Barrenetxea eta Eli Pagola. ❖

## ❖ KRONIKA-BERRIAK

### Azken sariduna

Kronikako saskien irabazleetako bat falta da; 428 zenbakia, hain zuzen. Igandera arteko epea du irabazleak, Kronikara deitzeko. ❖

## ❖ GAZTE ASANBLADA

### Bilera gaur Biterin: 'Rock In Tilos'

Otsailaren 16an *Rock In Tilos* musika jaialdia egingo da. Hau antolatzeko bilera egingo da gaur, 19:30etan Biterin. Gazte Asanbladako kide guztiei azaltzeko eskatu diete. ❖

## EMAKUMEENTZAKO JABETZE ESKOLA

# Bost ikastaro, ekaina bitarte

Lehenengo ikastaroa, Komikigintza, hilak 28 hasiko da. Ikastaro guztietan apuntatzeko izen ematea hilaren 25ean bukatuko da. Emozioak lantzeko ikastaroa izango da, Biodantza...

EMAKUMEENTZAKO Jabetze Eskola antolatu du Berdintasun Sailak. Eskola hau bihurtu nahi dute, emakumeentzako hausnarketa, trebakuntza eta elkartzeko leku. Asmo horrekin, 5 ikastaro antolatu dituzte, urtariletik ekainera bitarte, Biterin: Gure emozioak lantzen; Biodantza; Bestelako historia da. Emakume idazleak eta nobela historikoa; Mugimendu feministaren historia; eta Komikigintza eta ahalduntzea.

Lehenengo ikastaroa Komikigintza izango da eta urtarrilaren 28an hasiko da. Gainerakoak, otsailean eta martxoan hasiko dira. Ikastaroetan izena emateko azken eguna urtarrilaren 25a da. Haurtzaindegi zerbitzua izango da, izena ematean eskatzen dutenentzako. 943 33 70 17 edo [irantzuj@hernani.net](mailto:irantzuj@hernani.net). ❖



Umoreaz bizitzeko ikastaroak ere egin izan dira.

## IKASTAROAK

### KOMIKIGINTZA:

Irakaslea: Ainara Azpiazu  
Aduriz 'Axi'  
Hizkuntza: euskera  
Eguna: astelehena  
Orduetgia: 18:00-19:30  
Hasiere eguna: urtarrilak 28  
Iraupena: 16'30 ordu  
Matrikula: 16,50 euro  
*Komikia, norberaren gorputzaren berri emateko tresna.*  
[www.ainararaxpi.blogspot.com](http://www.ainararaxpi.blogspot.com)

### GURE EMOZIOAK LANTZEN:

Irakaslea: Pepa Bojó Ballester  
Hizkuntza: gaztelania  
Eguna: ostirala  
Orduetgia: 17:00-19:00  
Hasiere eguna: otsailak 1  
Iraupena: 20 ordu  
Matrikula: 20 euro  
*Norberak bere emozioak ezagutu eta bideratzea.*

### BIODANTZA:

Irakaslea: Ainhoa Iturbe Tolosa  
Hizkuntza: euskera  
Eguna: asteazkena  
Orduetgia: 17:00-18:30  
Hasiere eguna: otsailak 20  
Iraupena: 21 ordu

Matrikula: 21 euro

*Adierazpena, integrazioa eta giza potentziala garatzeko sistema.*

### BESTELAKO HISTORIA DA. EMAKUME IDAZLEAK ETA NOBELA HISTORIKOA:

Irakaslea: Mertxe Tranche Iparragirre  
Hizkuntza: gaztelania  
Egunak: otsailak 11 eta 25; martxoak 11 eta 25; apirilak 8 eta 22; maiatzak 6 eta 20.  
Orduetgia: 18:30-20:30  
Hasiere eguna: otsailak 11  
Iraupena: 16 ordu  
Matrikula: 16 euro

### MUGIMENDU FEMINISTAREN HISTORIA:

Irakaslea: Edurne Epelde Pagola eta Miren Aranguren Etxarte  
Hizkuntza: euskera  
Eguna: asteartea-martxoak 5, 12, 19 eta 26  
Orduetgia: 18:00-20:30  
Hasiere eguna: martxoak 5  
Iraupena: 10 ordu  
Matrikula: 10 euro

Bihartik aurrera  
zabalik

\* Ostegunetik igandera irekita

\* Asteburuan eguerdian ere zabalik

GOIKO Sagardotegia  
LASTOLA Baserriko Sagardoa

943 55 32 72 - 620 78 35 29

Ereñotzu auzoa - Hernani

tripontzi taberna  
Sabemos castellano

OSTEGUNETAN  
PINTXO  
FESTA!

Kardaberaz kalea, 11 • HERNANI  
943 555 724

AKELENEA  
Erretegia - XIX Mendeko Sagardotegian

Asteburuetan menu berezia  
22 €-tan

3 sarrera + 2.a aukeran  
postrea aukeran + arraia edo haragia  
ogia + urteko ardoa

KoldoetaFina

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - Tel. 943 333 333

**TELEFONOAK** ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 092 ● DYA: 943 464622  
 ● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037  
 ● Anbulatorioa: 943 006666 - 943 203020 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103  
 ● FARMAZIAK ● Egunez: Castilla Urbieta 7 - 943 552941 ● Gauez: Aldabe Perkaiztegi 8 (Antziola) - 943 336022

**EGURALDIA**  
**GAUR** Giro eguzkitsua nagusituko da, baina hotza egingo du. Zerua nahiko garbi egongo da, eta ondorioz, izotza botako du. Min.3º/Max.9º  
**BIHAR** Giro goibel eta umela, berriro ere. Goizean goizetik euria egingo du, eta arratsaldean, gehiago. Gainera, haizeak zakar joko du. Gauean, hoztu egingo du. Min.6º/Max.13º (euskaime)

## ASTIGARRAGA - TXOTX IREKIERA



La Oreja de Van Gogh taldeko boskotea, aurtengo sagardo berria probatzeko momentuan.

## Donostiako zipriztindua, Astigarragari

«Gure sagardo berria» oihu eginda, La Oreja de Van Gogh musika taldeak eman zion hasiera atzo, Astigarragako txotx denboaldiari.

DONOSTIAKO zipriztindua hartu zuen atzo Petrítegi sagardotegiak eta Astigarragak, La Oreja de Van Gogh musika taldeak eman baitzion hasiera aurtengo txotx denboraldiari. «Gure sagardo berria!» oihu egin aurretik, Leire Martinez abeslariak

azaldu zuenez, «errekonozimendua etxean egiten denean, bi aldiz balio izaten du». Mundu mailan arrakasta daukan musika taldeko bost kideek sagarrondoa landatu zuten Astigarragako sagardo etxean, eta handik segidan joan ziren Petrítegira ohorezko tra-

goa hartzera, ordezkari, arduradun, sagardogile eta abar haundi bat atzetik zutela. Aurrez, prentsurrekoan azaldu zituzten sagardo uzta bikaina izango denaren ezagutgarriak: ondo heldutako sagarrarekin egina, afrutatua eta gradu gehixegoduna. ||

### Jasota Bezala

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

**Eskubide zibil eta politikoen alde, larunbatean denok Bulera!** Urtarrilaren 19an 12:30tan Donostiako Bulebarrean, ELEAK, Eskubide Zibil eta Politikoen Aldeko Mugimenduak manifestazioa deitu du Donostian. Arrazoi ugari daude manifestazio hau eta ondoren etorriko den mobilizazio kate luzea deitzeko baina bi azpimarratuko genituzke: bata, Euskal Herriaren askapen prozesuan borrokan aritu diren gazte auzipetu guztiei elkartasuna adieraztea, eta bestea estatuek darabilten errepresio eta inmovilismo jarrera zital eta interesatua salatzea.

Asko eta asko dira gure herriaren defentsan lan politikoa egiteagatik, atxilotuak, torturatuak espetxeratuak eta epaituak izan diren, izaten ari diren eta izango diren gazteak. Adibide ugari jarri ditza-kegu zoritxarrez: Markina Xemeineko sarekada, Donostia-koa, Oretetako, Hernanikoa, Iruñeakoa, Gasteizkoa, Euskal Herri osoan zehar egin diren bi makro sarekadak...

Guztira, ehundik gora dira errealitate anker hau pairatu duten gazteak eta ehundaka

berau sufritu behar izan duten senide zein lagunak. Prozedura batzuk amaituta daude bada, batzuetan emaitza "positiboekin" besteetan espetxe zigorrarekin ordea, Markinako gazteak kasu.

Euskal Herrian prozesu demokratiko bat martxan jartzeko lehen pausoak eman diren honetan, badirudi estatuen aldetik ez dagoela inongo intenziorik aro berri honi heldutasunez eutsi eta pausoak emateko. Gazteen aurkako errepresio estrategiak bere horretan dirau. Egia bada ere, atxilotetak eten direla, ez da berdina gertatzen bere garaian hasitako prozedurekin. Prozedura hauek aurrera jarraitzen dute. Duela hilabete exkax jaso genuen notizia: Oretetako 5 gazte, 6 urte eta erdiko espetxe zigorra bete beharko dute Madrileko Auzitegi Gorenaren aginduz. Hauetako hiruk ezkutatzea erabaki dute beraien egoera agerian utzi eta lan politikorekin jarraitzeko. Data berdinetan jakin dugu Ekaitz Ibero donostiarra ere kartzele- ratzeko zain dagoela kale eraso bategatik kondenatuta. Argi geratu da Hernaniko kasuak ez diola estatuaren estrategia bati erantzuten, baizik espai-

niar auzitegi-terako loteria makabro horren adibide bat beste- rik ez dela.

Estatuaren inmovilismoa- rekin amaitu nahi badugu behar beharrezkoa dugu herri harresi bat sortzea. Guzti hau salatu eta prozesu demokrati- ko baten alde oihu egingo duen herri harresi bat. Erre- presioak ez duela tokirik argi utzi behar diegu, gure eskubi- deak aldarrikatzen eta defen- datzen jarraituko dugula argi utzi behar diegu, kaleak gure- ak direla argi utzi behar diegu, gaztea, ezkertiarra eta abertza- lea izatea ez dela delitua argi utzi behar diegu, Euskal Gaz- teriarekin ez dutela inoiz ama- ituko argi utzi behar diegu.

Animo eta besarkada be- roenak errepresioa sufritzen ari diren gazte guztiei! Eutsi gaztiak! Larunbatean 12:30tan denok Bulera!

**Iñigo Alzelai Duran, Aitzol Arrieta Erauskin, Ekhi Oñate Arrozpide, Jon Ezeiza Jauregi, Egoitz Balerdi Ugalde, Mikel Garcia Otamendi, Asier Olano Zabaleta, Antton Zabala Arabaolaza, Txaber Zabaleta Galdeano eta Ekaitz Telleria Aldaregia**

### ERREMONTA

## Binakako Txapelketako txapel- dunek jokatu dute gaurko estelar- rean

Barrenetxea IVa eta Urriza, Binakako Txapelketako txapel- dunak jokatu dute gaurko estelarra, Ezkurra eta Ionon aurka. Beste hiru partidu ere izango dira gaur Galarretan, arratsaldeko 16:00etatik aurrera: Ezkurra II-Urko/Etxabe II-Zubiri; Matxin III-Lizaso/Juaristi- Agirrezabala; eta Endika-Aizpuru III/Etxeberria IV-Labaka. ||

### LURREKO DENDA EKOLOGIKOA



## Iñaki Armendarizentzat, Lurrekoko saskia

Lurreko produktu ekologikoen dendak urtea bete zuen joan den abenduaren 29an. Hori dela eta, produktu sorta bat zozkatu dute bezeroen artean, eta sariduna Iñaki Armendariz hernaniarra suer- tatu da. Zorionak! ||

### Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

### III. URTEURRENA


## † Felix Arozena Apezetxea

JAUNA

2010eko urtarrilaren 17an hil zen, 83 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Emaztea: Hipolita Iriberrí; seme-alabak: Ana Rosa eta Jose Mari Etxeberria, Jose Antonio eta Aingeru Lekuona, Manu (†), Amaia eta Agustin Gorostegui; bilobak: Amaia, Unai, Ane, Maider eta Oier; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak.



Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitezte- la **IGANDEAN**, goizeko **10:00etan**, **Ereñotzuko SAN ANTONIO** parroki elizan egingo den **Urtebetetze mezara**. Aldez aurretik, mila esker.

Ereñotzun, 2013ko urtarrilaren 17an

### V. URTEURRENA

## † Carmen Nieto Blanco

ANDREA

2008ko urtarrilaren 17an hil zen Hernanin, 81 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta.

-Goian bego-

Gogoan zaitugu.

**ZURE FAMILIA**

Hernanin, 2013ko urtarrilaren 17an



### IRAGARKI MERKEAK

Gabriel Zelaian garajea salgai. Deitu: 607 349 163

**ETXeko KONPONKETAK** egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

**Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia,...: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)